



Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko Zerbitzua

2024. URTEKO MEMORIA



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta dokumentuaren xedea	4
2. Erakundea	6
3. Esku-hartzeak	23
3.1 Datu orokorrak.....	23
3.2 Esku-hartzeen banaketa egutegiaren arabera.....	29
3.3 Erantzun denborak eta esku-hartzeen iraupena	33
3.4 Gertakari moten xehetasunak	35
3.5 Suhiltzaile etxeen xehetasunak	38
3.6 Valentziako GOIDla	39
4. Prestakuntza	40
5. Prebentzioa.....	41
6. Plangintza	42
7. Operazioak.....	44



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

1. Sarrera eta dokumentuaren xedea

Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren beharretara egokitutako zerbitzu publiko ugari eskaintzen ditu. Horietako bat da Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko Zerbitzua (aurrerantzean, PSISZ), zeinaren ardura baita pertsonak, ondasunak eta ingurumena askotariko larrialdien aurrean babestea. Dokumentu honek 2024ko gertaera garrantzitsuenak eta Zerbitzuaren egoera jasotzen ditu.

Aurten, PSISZak 29,4 milioi euroko finantzaketa izan du (2023koa baino % 11,7 handiagoa). Aurrekontu hori modu eraginkorrean erabiltzeko helburuari eusten zaio, herritarrek egin den lanarekin ahalik eta gogobetetze maila handiena izan dezaten.

Sarrera hau amaitzeko, ongi etorria eman nahi diegu 2024an Suhiltzaile Zerbitzura bildu diren pertsona guztiei. Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, aurten erretiroagatik edo beste arrazoi batzuegatik utzi gaituzten guztiei, eta benetan eskertu nahi ditugu zerbitzu hau osatzen duten pertsona guztien konpromisoa eta lan ona.

Dokumentuaren xedea

Dokumentu honen helburu nagusia Zerbitzuaren egoera ezagutaraztea da. Dokumentu honetatik konpromiso hauek sortzen dira:

- Emaizak erregistratzea. PSISZak lortutako emaitzak jasotzeko balio du dokumentuak, bai alderdi operatiboari dagokionez, bai gainerako arloei dagokienez (prebentzioa, prestakuntza, operazioak eta plangintza).
- Gardentasuna. Dokumentu honek aukera ematen du Zerbitzuaren egoera integrala zein den ezagutzeko, bai ibilgailu flotaren egoera baita langileena ere. Ikuspegi orokor horri esker, Zerbitzura hobeto egokitzen diren proposamenak eta ekintza planak sor daitezke.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK


2. Erakundea

Lehenengo kapitulu honetan, Zerbitzuaren antolaketa orokorra zehazten da. Horrela, gaur egun dituen suhiltzaile etxeak, estaldura eremuak, langileak eta ibilgailuak deskribatzen dira. Azkenik, larrialdiak duten izaeraren eta larritasunaren arabera sailkatzeko sistema ere azaltzen da.

2.1 Suhiltzaile etxeak eta eremu operatiboak

Gipuzkoako PSISZa zortzi suhiltzaile etxe profesionalek osatzen dute. Suhiltzaile etxeak gutxienez hiru suhiltzailez eta kabo batez osatuta daude (Bidasoako suhiltzaile etxean, bost suhiltzaile eta kabo bat daude). Gainera, guardia bakoitzean, bi suhiltzaile gehiago sartzen dira suhiltzaile etxe bakoitzeko, erantzun operatibo eraginkorragoa emateko eta, langileen gorabeherarik izanez gero, zuzkidura ezarritako gutxienezkotik behera murrizten ez dela bermatzeko. Suhiltzaile etxeetako zuzkidurek, sarjentuekin eta guardiaburuekin batera, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan ematen dute zerbitzua.

Ondorengo irudian, modu grafikoan ageri dira suhiltzaile etxeen kokapena eta haien estaldura eremua:




Z. 1	1 - ZUBILLAGA (OÑATI)
	7 - ARRATE (EIBAR)
	8 - UROLA (AZPEITIA)
Z. 2	2 - BIDASOA (IRUN)
	4 - KOSTA (ZARAUTZ)
Z. 3	3 - GOIERRI (ORDIZIA)
	5 - ORIA (TOLOSA)
	6 - KOROSTI (LEGAZPI)

Nabarmendu behar da ezen, suhiltzaile etxe bakoitzak bere estaldura eremua duen arren, suhiltzaile etxe guztiek sare gisa funtzionatzen dutela, eta, ondorioz, gertakariaren larritasunaren arabera, suhiltzaile etxe bat edo gehiago irten daitezkeela beren estaldura eremutik suhiltzaile etxe nagusiari laguntzeko.

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Gipuzkoako lurralde historikoa hiru eremu operatibotan banatuta dago. Gipuzkoaren zonakatze operatiboaren helburua sarjentuen estaldura eremua zehaztea da. Suhiltzaile etxe bakoitzak bere estaldura eremua duen antzera, sarjentuek –eremu operatibo bakoitzeko bat dago– eremu handiago bat hartzen dute; haien erantzukizuna 1. mailako edo goragoko esku-hartzeak kudeatzea da (2.5 *Larrialdien sailkapena* atalean ezartzen dira esku-hartzeei maila operatiboa esleitzeko irizpideak).


Lehenengo eremua ZUBILLAGA, ARRATE eta UROLA suhiltzaile etxeek osatzen dute. Bigarren eremua, aldiz, BIDASOA eta KOSTA suhiltzaile etxeek. Eta azkenik, GOIERRI, ORIA eta KOROSTI suhiltzaile etxeek hirugarren eremua osatzen dute. Hurrengo irudian hiru eremu operatiboak ikus daitezke.



Langile operatiboei buruzko aipamenak amaitzeko, guardiaburuaren ardura da gutxieneko guardia bermatzea eta 3. mailako edo goragoko esku-hartzeak kudeatzea.


Jarraian, suhiltzaile etxe bakoitzaren ezaugarri nagusiak deskribatzen dira. Alde batetik, suhiltzaile etxe bakoitzaren estaldura eremua zehazten da, eta, bestetik, suhiltzaile etxe horren jarduketa eremuko udalerriak zerrendatzen dira. Gai honetan, garrantzitsua da ohar bat egitea: kasu batzuetan, udalerri berari dagokionez, gertakariaren puntu zehatzaren arabera suhiltzaile etxe bat edo bestea aktibatuko da. Erantsitako tauletan, informazioa xehatuta eman beharrean, Gipuzkoako PSISZeko suhiltzaile etxeak eta udalerriak azaletik lotzera mugatzen da.

1 - ZUBILLAGA




Zubillaga suhiltzaile etxea Oñatin dago, eta honako udalerri hauei ematen die zerbitzua:

Udalerria	Km²	Biztanleria
ARRASATE	32,93	21.943
BERGARA	75,63	14.761
OÑATI	107,53	11.462
ARETXABALETA	26,95	7.208
ESKORIATZA	40,32	4.241
ELGETA	17,51	1.108
LEINTZ-GATZAGA	14,69	225
Totala	315,56	60.948




Suhiltzaile etxearen plantilla 30 suhiltzailek, 6 kabok eta 2 sarjentuk osatzen dute.

2 - BIDASOA



Bidasoa suhiltzaile etxea Irunen dago, eta udalerri hauei ematen die zerbitzua:


Udalerria	Km²	Biztanleria
IRUN	41,86	60.749
RENTERIA	32,02	39.792
HONDARRIBIA	29,83	17.105
OIARTZUN	59,50	10.383
PASAI DONIB.*	10,64	2.228
LEZO	8,47	6.010
Totala	182,32	136.267



* Pasaiko zati bat Donostiako PSISZaren eremupean dago.

Suhiltzaile etxearen plantilla 42 suhiltzailek, 6 kabok eta 4 sarjentuk osatzen dute.

3 - GOIERRI



Goierri suhiltzaile etxea Ordizian dago, eta udalerri hauei ematen die zerbitzua:


Udalerria	Km²	Biztanleria
ABALTZISKETA	11,48	304
ALTZAGA	2,46	164
ARAMA	1,35	185
ATAUN	58,36	1.727
BEASAIN	29,94	13.846
GAINZA	5,91	125
IDIAZABAL	29,30	2.315
ITSASONDO	8,95	685
LAZKAO	11,60	5.862
LEGORRETA	8,56	1.494
OLABERRIA	6,98	946
ORDIZIA	5,68	10.286
ORMAIZTEGI	6,86	1.266
SEGURA	9,35	1.473
ZALDIBIA	16,65	1.736
ZEGAMA	34,83	1.543
EZKIO-ITSASO*	21,22	150
Gipuzkoako partzuergoa	4,76	
Enirio-Aralar	34,00	
Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoa	32,07	
Totala	340,31	44.107



*Ezkio Korosti suhiltzaile etxearen eremupean dago.


Suhiltzaile etxearen plantilla 30 suhiltzailek, 6 kabok eta 2 sarjentuk osatzen dute.

4 - KOSTA



Kosta suhiltzaile etxea Zarautzen dago, eta udalerri hauei ematen die zerbitzua:

Udalerria	Km ²	Biztanleria
AIA	54,89	2.127
AIZARNAZABAL	6,54	761
GETARIA	11,19	2.931
ORIO	9,87	6.187
ZARAUTZ	14,84	23.333
ZUMAIA	11,12	10.090
Totala	108,45	45.429



Suhiltzaile etxearen plantilla 30 suhiltzailek, 6 kabok eta 2 sarjentuk osatzen dute.

5 - ORIA



Oria suhiltzaile etxea Tolosan dago, eta udalerri hauei ematen die zerbitzua:

Udalerria	Km²	Biztanleria
ADUNA	7,04	496
ALBIZTUR	12,71	301
ALEGIA	7,74	1.859
ALKIZA	11,95	348
ALTZO	9,77	396
AMEZKETA	20,58	920
ANDOAIN	27,14	14.785
ANOETA	4,11	2.114
ASTEASU	16,84	1.538
BALIARRAIN	2,75	159
BELAUNTZA	3,43	310
BERASTEGI	45,71	1.085
BERROBI	2,95	569
BIDANIA-GOITZ	13,74	532
AMASA-VILLABONA	17,63	5.747
ELDUAIN	25,25	243
GAZTELU	9,24	176
HERNIALDE	4,23	318
IBARRA	5,13	4.074
IKAZTEGIETA	2,07	492
IRURA	2,91	1.857
LARRAUL	5,62	257
LEABURU	3,33	380
LIZARTZA	12,26	686
ORENDAIN	6,38	241
OREXA	5,76	100
TOLOSA	37,22	19.961
ZIZURKIL	15,64	2.895
Totala	339,13	62.839




Suhiltzaile etxearen plantilla 30 suhiltzailek, 6 kabok eta 2 sarjentuk osatzen dute.

6 - KOROSTI



Korosti suhiltzaile etxea Legazpin dago, eta udalerri hauei ematen die zerbitzua:


Udalerria	Km ²	Biztanleria
EZKIO-ITSASO*	21,22	462
GABIRIA	14,83	539
LEGAZPI	42,13	8.372
MUTILOA	8,61	240
URRETXU	7,53	6.822
ZERAIN	10,17	281
ZUMARRAGA	18,49	9.590
ANTZUOLA	27,89	2.139
Totala	150,87	28.445



*Itsaso Goierri suhiltzaile etxearen eremupean dago.


Suhiltzaile etxearen plantilla 30 suhiltzailek, 6 kabok eta 2 sarjentuk osatzen dute.

7 - ARRATE




Arrate suhiltzaile etxea Eibarren dago, eta udalerri hauei ematen die zerbitzua:

Udalerria	Km ²	Biztanleria
DEBA	50,92	5.378
EIBAR	24,55	27.039
ELGOIBAR	38,83	11.518
MENDARO	25,28	2.025
MUTRIKU	28,05	5.324
SORALUZE	14,03	3.727
Totala	181,66	55.011




Suhiltzaile etxearen plantilla 30 suhiltzailek, 6 kabok eta 2 sarjentuk osatzen dute.

8 - UROLA



Urola suhiltzaile etxea Azpeitian dago, eta udalerri hauei ematen die zerbitzua:

Udalerria	Km ²	Biztanleria
AIA	54,89	2.127
AIZARNAZABAL	6,54	761
GETARIA	11,19	2.931
ORIO	9,87	6.187
ZARAUTZ	14,84	23.333
ZUMAIA	11,12	10.090
Totala	108,45	45.429



Suhiltzaile etxearen plantilla 30 suhiltzailek, 6 kabok eta 2 sarjentuk osatzen dute.

Bai Esan – Central de comunicaciones

Nahiz eta izatez ez den suhiltzaile etxe bat, komunikazio zentroak zeregin erabakigarria du PSISZaren operatibitateari dagokionez.

Zerbitzua abian jarri zenean, larrialdietako dei guztiak suhiltzaile etxeetan jasotzen eta kudeatzen ziren. PSISZaren sorreran jadanik aurreikusi zen etorkizunean komunikazio, koordinazio eta kontrol zentro iraunkor bat sortzearen beharra, Zerbitzuko suhiltzaile etxe eta baliabide operatibo guztiei euskarria emango ziena eta deiak nahiz komunikazioak zentralizatu eta jasoko zituen.

Suhiltzaileen larrialdiak koordinatzeko komunikazio zentro foral honek Bai Esan izena du eta 1992an sortu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko lokaletan. Urte batzuk geroago, 2018an, Komunikazio Zentroa Donostiako Suhiltzaile Etxearen barruko instalazio berri batzuetara lekualdatu zen, Udal Zerbitzuaren zentrala zegoen espazio berera.


2024an, 9 langilek 7.043 alarma kudeatu zituzten; horietatik 3.888 PSISZaren zerbitzu bilakatu ziren. Gainerako alarmek ez zuten irteerarik sortu; kasu batzuetan, haietako batzuk informatiboak zirelako (adibidez, abisu meteorologikoak, bide segurtasuneko abisuak eta abar); eta beste batzuetan, aldiz, alarma ireki arren, ez zegokiolako zerbitzua ematea.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

2.2 Langileak

348 langilek osatzen dute Zerbitzuaren plantilla. 2024an 48 suhiltzaile gehitu zitzaizkion egiturari. Antolamendu egitura berria irudi honetan ageri da:



Langile operatiboak dagokienez, langile aktiboak honela banatuta zeuden 2024an:

Lanpostua	Karrerakoak	Bitartekoak	Programakoak	Guztira
Ofizialak / ofizialordeak	3	8	0	11
Sarjentuak	11	7	-	18
Kaboak	24	24	-	48
Suhiltzaileak	134	71	47	252
Bai Esan	7	2	-	9



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Langile ez operatiboak, aldiz, honela banatuta zeuden 2024an:

Lanpostua	Karrerakoak	Bitartekoak	Guztira
Zerbitzuburua	1	-	1
Bulegoburua	1	-	1
Administrariak	3	0	3
Prestakuntzako kaboa	1	-	1
Mantentze arloko langileak	1	1	2
Laguntzaile teknikoa	1	-	1
Biltegiko arduraduna	-	1	1

Azkenik, honako langile aldaketa hauek izan ziren 2024an:

- Lanean hasitakoak:
 - Administrazio bi pertsona.
 - 37 suhiltzaile.
- Bajak:
 - Ofizial bat.
 - Administrazio bi pertsona.
 - 19 suhiltzaile.
- Erretiroak:
 - Bi ofizialorde.
 - Sarjentu bat.
 - Bi kabo.
 - Lau suhiltzaile.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

2.3 Ibilgailu flota

2024aren amaieran, Zerbitzuak 113 ibilgailuko flota zuen. Flota hori ibilgailu astunek (43), ibilgailu arinek (47) eta atoeik (23) osatzen dute. Flota horrek ahalbidetzen du suhiltzaile etxe bakoitzari zuzkidura estandar bat esleitu ahal izatea eta ordezeko ibilgailuak eduki ahal izatea, gerta daitezkeen matxuren eta programatutako mantentze lanen ondorioetarako.

Mota	Kopurua	Urteak (gutxienekoa - gehienekoa)
Hiriko ponpa astuna	12 (+1)	0-12
Ur hornidurako ponpa astuna	9 (+1)	0-33
Askotariko tresnetarako furgoia	11	2-31
Auto eskailera automatikoa	10	1-27
Moduluak eramateko kamioia	2	16-16
Edukiontzia eramateko kamioia	1	5-5
Lur orotako ibilgailu arina	16	5-28
Aginte ibilgailua	10	2-9
Beste ibilgailu arin batzuk	19	1-17



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Bestalde, beste atoi eta edukiontzi berezi hauek ere baditu Zerbitzuak:

Mota	Kopurua
Arrisku kimikoetarako atoaia	8
Eskoratzeetarako atoaia	1
Sorgailu atoaia	8
Gatza zabaltzeko atoaia	3
Aginte postu aurreraturako edukiontzia	1
Baso sutearen modulua	2 (+1)

Azkenik, honako ibilgailu eta atoi hauek erosi ziren 2024an:

- Hiri ponpa astun bat, kabina bikoitzekoa, Korosti suhiltzaile etxerako.
- Ponpa inude astun bat, 7.270 litroko edukierarekin, Bidasoako suhiltzaile etxerako.
- Baso sutearen modulu bat, Zubillaga suhiltzaile etxerako.



2.4 Suhiltzaile etxeak birgaitzeko plana

Gipuzkoako PSISZak suhiltzaile etxeak birgaituz azpiegitura hobetzeko proiektu bati ekin dio. Jarduketa horrek instalazioak modernizatzeko eta egungo segurtasun, energia eta funtzionaltasun estandarretara egokitzeko beharrari erantzuten dio, eta, horrela, baldintza ezin hobeak bermatzen dira, bai Suhiltzaile Zerbitzuko profesionalentzat, bai zerbitzua ematen zaien herritarrentzat.

Orain arte, Bidasoako (2022) eta Goierriko (2024) suhiltzaile etxeak birgaitu dira, energia efizientzia hobetzeko soilik. 2026. urteari begira, ordea, Zubillaga birmoldatzea aurreikusten da, asmo handiagoko helburu batekin: Suhiltzaile etxearen funtzionaltasun, segurtasun eta efizientzia estandarrak hobetzea.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

2.5 Larrialdien sailkapena

ESKU-HARTZEekin barne sailkapena egiten da bi faktoreren arabera: gertakariaren izaera eta haien larritasuna. Alde batetik, esku-hartzearen izaera kontuan hartuta, hiru talde handitan bereizten dira: Sutea, Salbamendua eta Laguntza Teknikoa. Horietako bakoitza azpitaldetan ere banatzen da.

Bestalde, esku-hartzearen larritasuna kontuan hartuta, honako bost talde hauetan sailkatzen dira:


- 0. maila: Sute lokalizatuak eta/edo ezbeharrak, konplikazio handiegirik eta larriagotzeko aukerarik gabeak, edo, aurreikus daitekeen moduan, ondasunentzat eta/edo pertsonentzat arrisku handiegirik ez dakartenak, eta gutxieneko zuzkidura baten bitarteko eta baliabide operatiboekin kontrola daitezkeenak (3 suhiltzaile eta kabo 1). Dagokion taldeko kaboaren zuzendaritza edo agintea (aginte esleitua) behar dute horrelako ezbeharrek.
- 1. maila: Zailtasun handirik gabeak, gutxieneko zuzkidura baten bitarteko eta baliabide operatiboekin kontrola daitezkeenak (3 suhiltzaile eta kabo 1), baina konplexutasunen bat edo okerrera egiteko aukera dutenak. Horregatik, eskuragarri egonez gero, suhiltzaile etxe horretako baliabide gehigarriak mobilizatzea eskatzen dute. Horrelako ezbeharrek sarjentu baten zuzendaritza edo agintea (aginte esleitua) eskatzen dute.
- 2. maila: Larrialdi egoera larria, okerrera egin dezakeena eta pertsonen eta/edo ondasunen eragiten diona, kopuruari edo larritasunari dagokionez; eta, kontrolatua izateko, sarjentu baten zuzendaritzapean bi suhiltzaile etxe erabat mobilizatzea eskatzen duena.
- 3. maila: Larrialdi egoera larri baieztatua, garatua edo larriagotua, okerrera egin dezakeena eta/edo zailtasun erantsiak dituenak. Hiru suhiltzaile etxeetako baliabide operatiboak mobilizatzea eskatzen du, guardiaburuaren zuzendaritzapean eta agindupean.
- 4. maila: Larrialdi larriak, pertsona eta/edo ondasun askori eragiten dietenak, eta hiru suhiltzaile etxe edo gehiago mobilizatzea eskatzen dutenak. Larrialdi horren zuzendaritza Aginte Postu Aurreratutik egingo da, eta esku-hartzeko agintea guardiaburuak izango du.

3. Esku-hartzeak

Zerbitzuaren antolaketa ezagutu ondoren, esku-hartze operatiboei buruzko datuak aurkeztuko dira. Atal honetan, PSISZaren estatistikak erakusten dira eta 2024ko garapena aurreko urteetakoekin alderatzen da.

3.1 Datu orokorrak


2024an, guztira, 3.370 esku-hartze egin ziren, hau da, 2023an baino % 10 gehiago (orduan 3.048 izan ziren). Esku-hartzeen kopuruak gora egitearen arrazoi nagusia burututako laguntza teknikoaren kopuruak gora egin izana da, baita suteen eta salbamenduen kopuruaren igoera txiki bat ere. Hurrengo grafiko honetan, Gipuzkoako PSISZak 1985etik gaur egun arte egin dituen esku-hartzeen kopurua ikus daiteke.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Esku-hartze kopurua, motaren eta mailaren arabera

Hurrengo grafiko honetan, esku-hartze guztiak xehatzen dira, izaeraren eta larritasunaren arabera, 2024ko esku-hartzeen ikuspegi orokorra lortzeko helburuarekin.




Grafikoan ikus daitekeenez, irteera gehienak salbamendukoak izan ziren 2024an (% 33,4). Bestalde, larritasunaren arabera, 0. mailako esku-hartzeak izan ziren gehienak (% 68,36). Era berean, nabarmendu behar da 3. mailako 10 irteera aktibatu zirela 2024an (aurreko urtean baino bost gutxiago), eta ez zela 4. mailako irteerarik aktibatu.

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Esku-hartze kopurua, suhiltzaile etxeen arabera

Hurrengo grafiko honetan, suhiltzaile etxe bakoitzak suhiltzaile etxe nagusi gisa egin zituen esku-hartzeen kopurua adierazten da. Ez dira zenbatu laguntzako edo bigarren mailako suhiltzaile etxe gisa aterata egin ziren esku-hartzeak.




Irteera gehien izan zituen suhiltzaile etxea Bidasoa izan zen, eta, ondoren, Oria, Arrate eta Zubillaga. Irteera gutxien izan zituzten suhiltzaile etxeak, berriz, Urola eta Korosti izan ziren.

Datu horiek 2023koekin alderatuta, suhiltzaile etxe guztietan, Goierri eta Kosta izan ezik, gora egin zuen esku-hartzeen kopuruak.

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Garrantzitsua denez, halaber, suhiltzaile etxeen arteko laguntza sistemak nola funtzionatzen duen jakitea, hurrengo irudian adierazten da (gezien lodieraren bidez) zenbat aldiz joan zen suhiltzaile etxe bat beste suhiltzaile etxe baten estaldura eremuko esku-hartze batean laguntzera.




Gehien errepikatu zen laguntza, Kostako zuzkidurek Bidasoa suhiltzaile etxearen estaldura eremuan egindakoa izan zen; guztira 84 irteera. Nabarmentzekoa da, halaber, 3. eremuko suhiltzaile etxeen arteko lankidetzeta handia.

Bestalde, 2024an, honako hau izan zen Donostia PSISZarekin izandako lankidetzeta:

- Donostiako PSISZak 5 esku-hartzetan lagundu zuen gure estaldura eremuan (3 Errenterian, 1 Irunen eta 1 Lezon).
- Gipuzkoako PSISZak 29 esku-hartzetan lagundu zuen bere estaldura eremuan (13 Donostian, 11 Usurbilen, 4 Astigarragan eta 1 Lasarten).

Udalerrien arabeko banaketa.

Esku-hartzeak horiek gertatu ziren udalerriaren arabera aztertuz gero, lotura zuzena dago, oro har, udalerriaren tamainaren eta bertan egin diren esku-hartze kopuruaren artean.



Esku-hartze gehien aktibatu ziren udalerria Irún da, aurreko urtean baino 49 esku-hartze gehiagorekin, eta, ondoren, Errenteria (aurreko urtean baino 8 esku-hartze gutxiagorekin). Jarraian, Eibar, Tolosa, Azpeitia eta Arrasate daude. Zerbitzuaren 2024ko esku-hartze guztien % 50 irteera gehien izan zituzten hamar udalerrietan egin ziren.


Udalerri horietan, irteera kopurua eta biztanleria alderatuz gero, honako hau ondorioztatzen da:

- Legazpi eta Azpeitia dira biztanleko irteera gehien izan zituzten udalerriak (10,85 eta 9,33 irteera 1.000 biztanleko, hurrenez hurren).
- Errenteria da biztanleko irteera kopuru txikiena izan zuen udalerria (4,36 irteera 1000 biztanleko).

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Ezbeharrek eragindakoen kopurua

Gipuzkoako PSISZak 2024an egindako esku-hartzeetan, 746 eragindako izan ziren, hau da, aurreko urtean baino % 4 gutxiago. Beraz, azken urtean, irteeren kopurua handitzeak ez du eragin ezbeharrek eragindakoen kopurua handitzea. Ondorengo grafikoan, eragindakoak sailkatzen dira, esku-hartze motaren eta eragin motaren arabera.



Salbamenduko multzoan, guztira 39 heriotza gertatu ziren, aurreko urtean baino lau gutxiago. Horietatik 5 trafiko istripuetan, 24 hiriko erreskate eta salbamenduetan, 6 natura edo landa inguruneke erreskate eta bilaketetan, eta, azkenik, 4 hildako ur inguruneke erreskateetan. Era berean, 290 pertsona ebakuatu ziren, eta guztira 415 biktima izan ziren 2024ko esku-hartzeetan.

Txosten kopurua


2024an, 145 esku-hartzeren txostenak egin ziren, aurreko urtean baino 93 txosten gutxiago. Horietatik % 48 abokatuek, aseguratzailerak edo poliziak eskatu zituzten; % 23 erakunde publikoek, eta gainerakoak partikularrek. Txosten horien helburua da Gipuzkoako PSISZak esku-hartze bakoitzean egindako ekintzak argitzea.

3.2 Esku-hartzeen banaketa egutegiaren arabera

Puntu honetan, esku-hartzeak denboran zehar nola banatu diren aztertzen da.

Esku-hartze kopurua, hilabetearen eta motaren arabera

Hurrengo grafikoan, sute, salbamendu eta laguntza teknikoen kopurua eta aktibatu ziren hilabeteen arteko erlazioa ikus daiteke.




Interesgarria da egiaztatzea, aurreko urtean bezala, urtearen bigarren erdian irteera kopurua lehen erdian baino nabarmen handiagoa izan zela (1.934 eta 1.436, hurrenez hurren). Bestalde, urrian erregistratu zen irteera kopururik handiena, 2023an bezala.

Sute kopurua uniforme izan zen urte osoan. Kopururik txikiena (62) otsailean eta irailean izan zen eta handiena, berriz, abuztuan (93). Salbamendu kopuruari dagokionez, esku-hartze gutxien martxoan egin ziren (71) eta esku-hartze gehien urrian (137). Azkenik, laguntza teknikoen kopurua da aldakortasun handieneko blokea, aurreko urtean bezala. Martxoan izan zen kopururik txikiena (193) eta urrian handiena (401), liztor habiak neutralizatzeko esku-hartzeen gorakadaren ondorioz.

Urteko egun kopurua, irteera kopuruaren arabera

Grafiko honetan, aldiz, Gipuzkoako PSISZean eguneko egiten den esku-hartze kopuruaren banaketa zehazten da.




2024an, aurreko urteetan bezala, egunean 9 esku-hartze egin ziren batez beste. Egunen % 80an 5 irteera baino gehiago eta 14 baino gutxiago izan ziren. Gainerako egunak, % 20a, egun bereziki lasaiak edo bereziki mugituak izan ziren. Esku-hartze askoko egunetan eguraldi txarra izaten da.

Jarraian, urtean zehar esku-hartze gehien erregistratu ziren hiru guardiak zehazten dira. Lehenik eta behin, abenduaren 7ko eta 8ko guardietan 75 irteera izan ziren guztira, batez ere eguraldi txarragatik, haize bortitza eta elurra ere izan baitziren. Bigarrenik, azaroaren 24ko eta 25eko guardietan 79 irteera izan ziren, intentsitate handiko haizeek eraginda. Azkenik, urriaren 9ko eguna nabarmendu behar da, haize gogorrek eta zaparradek gorabehera ugari eragin baitzituzten.

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Esku-hartze kopurua, motaren eta asteko egunaren arabera.

Esku-hartze guztiak abisuaren asteko egunaren arabera sailkatzen badira, datuek lerro horizontalari jarraitzen diote, eta igoera txiki bat dago astearen hasieran eta amaieran. Urtean zehar, adibidez, alderik handiena ostiralaren eta igandearen artean gertatzen da, guztira 129 irteera gehiago izan baitziren bigarreanean.




Esku-hartzearen izaera kontuan hartzen bada, ondorioztatzen da 2024an salbamenduen eta suteen kopurua pixka bat handitu zela igandeetan, eta laguntza teknikoen kopuruak, berriz, ez zuela patroia behagarri jarraitu.

Azkenik, azpimarratu behar da ezen, datu historikoak aztertuta, datuek ez dutela urtero eredu bera jarraitzen. Horregatik, alderdi horri dagokionez, ezin da aurtengo egoera hurrengo urteetara estrapolatu.

Esku-hartze kopurua, eguneko orduaren arabera.

Atal hau amaitzeko, grafiko honetan esku-hartzeak aktibazio orduaren arabera erakusten dira:




Esku-hartzeak abisu orduaren arabera sailkatuz gero, ondoriozta daiteke esku-hartze gehienak egunez egin zirela. Halaber, esan daiteke, eguneko ordutegian, arratsalde (14:00-20:00) irteera gehiago aktibatu zirela goizez baino (08:00-14:00). Patroi hori bera errepikatzen da urtez urte.

3.3 Erantzun denborak eta esku-hartzeen iraupena

Atal honetan, esku-hartze mota ezberdinen erantzun denborei eta iraupenei buruzko informazioa erakusten da.

Joaneko denborak

Zerbitzuak iritsiera denborak erregistratzen ditu, tokira iristeko zenbat denbora behar den jakiteko eta suhiltzaile etxe bakoitzaren estaldura eremua optimizatzeko. Ondorengo grafikoa, joaneko denborei buruzko informazioa ikus daiteke.




Azpiarratu behar da Zerbitzuak eusten diola herritarrei 15 minutu baino gutxiagoko joaneko denborak behar dituen zerbitzu bat eskaintzeko helburuari. 2024an, kasuen % 84an bete zen helburua. Ehuneko hori aurreko urtekoaren oso antzekoa da.

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Esku-hartze denbora

Ondorengo grafikoan, esku-hartzeen iraupena ikus daiteke, izaeraren arabera.




Salbamenduak izan ziren, batez beste, iraupen laburrenako esku-hartzeak, horien % 68 30 minutu baino gutxiagoan neutralizatu baitziren. Bestalde, laguntza teknikoek salbamenduek eta suteek baino gehiago iraun zuten oro har; batez beste, 30 minutu.

3.4 Gertakari moten xehetasunak

Atal honetan, suteen, salbamenduen eta laguntza teknikoen blokeetan sakonduko dugu. Helburua da zehatzago jakitea nola banatzen diren esku-hartze mota ezberdinak.

Suteak


Suteak itzaltzeko beharra izan zen Gipuzkoako PSISZa sortzeko arrazoia. Ondoren, jarduera eremu berriak gehitu ziren. Horiek esku-hartze guztien % 26 dira (aurreko urtean baino 54 esku-hartze gehiago). Hurrengo grafikoan ikus daiteke horien banaketa.



Suteen barruan, bost mota daude: hirikoa edo landakoa (% 75), industriakoa edo biltegietakoa (% 7), basokoa (% 4), garraio azpiegituretakoa (% 14) eta leherketak (% 0). Aurreko urtearekin alderatuta, behera egin dute industriako eta basoko suteek. Aldiz, hiriko edo landako suteek eta garraio azpiegituretakoek gora egin dute.

Salbamenduak

Salbamenduetan, pertsona eta/edo animalia bat arrisku egoeran egon daitekeen esku-hartzeak daude. Esku-hartze mota hori 2024ko esku-hartze guztien % 33,4 izan zen. Hurrengo grafikoan ikus daiteke horien banaketa.




Salbamenduko blokearen barruan, bost talde bereizten dira: trafiko istripuak (% 22,4), hiriko erreskatea eta salbamendua (% 58,8), jokabide autolitikoak (% 3,4), natura edo landa inguruneak (% 14,14) eta erreskate bilaketa ur ingurunean (% 1,5). Azken urtean, jokabide autolitikoak izeneko multzo berri bat sortzea erabaki da. Aurreko urteetan, horrelako esku-hartzeak hiriko salbamenduen multzoan sartzen ziren.

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Laguntza teknikoak

Ezbeharrak okerrera egin ez dezan baliabide tekniko espezifikoak eskatzen dituzten esku-hartzeak dira laguntza teknikoak. 2024ko esku-hartze guztien % 32 izan ziren. Hau da, % 5eko igora izan zuten aurreko urtearekin alderatuz.



Laguntza teknikoen barruan, sei talde bereizten dira: gertakariak gasarekin (% 10,6); gertakariak salgai arriskutsuekin (% 3,4); gertakariak urarekin (% 7,4); eraikin edo egiturekin lotutako gertakariak, biktimarik gabeak (% 7,1); askotariko arriskuak erretiratzea (% 64,4), eta, askotariko laguntzak (% 7,1).

Igoerarik handiena askotariko arriskuak erretiratzearen multzoan gertatu zen. Esku-hartze horiek muturreko baldintza meteorologikoekin, liztorren habiak kentzearekin eta abarrekin lotuta daude.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

3.5 Suhiltzaile etheen xehetasunak

Suhiltzaile etxea	Kopurua guztira	Nagusia Bigarren mailakoa	Alarma faltsua Sutea Salbamendua Laguntza	0. maila 1. maila 2. maila 3. maila	Eragin handieneko udalerriak	Joaneko bidaiaren batez besteko iraupena (min)	Esku-hartzearen batez besteko iraupena (min)
1 - Zubillaga	413 (49↑)	391 22	26 128 136 101	263 78 71 1	Arrasate (139) Oñati (78) Bergara (70)	13,1	45
2 - Bidasoa	898 (76↑)	897 1	91 221 322 263	641 167 85 5	Irun (447) Errenteria (171) Hondarribia (119)	10,2	32
3 - Goierri	463 (17↑)	365 98	22 87 109 147	234 88 136 5	Beasain (68) Ordizia (72) Lazkao (38)	10,9	36
4 - Kosta	443 (20↓)	332 111	24 95 98 115	229 74 134 6	Zarautz (132) Orio (49) Zumaia (43)	12,6	41
5 - Oria	563 (90↑)	517 46	52 132 181 152	350 109 96 8	Tolosa (164) Andoain (100) Villabona (51)	10,1	36
6 - Korosti	302 (18↑)	231 71	19 74 60 78	155 47 98 2	Legazpi (90) Urretxu (56) Zumarraga (51)	8,9	58
7 - Arrate	445 (65↑)	418 27	34 81 162 141	283 95 66 1	Eibar (168) Elgoibar (83) Deba (39)	12	42
8 - Urola	258 (6↑)	219 39	8 51 58 102	158 41 57 2	Azpeitia (142) Azkoitia (54) Zestoa (15)	9,9	60

3.6 Valentziako GOIDIa

Goi geruzetako depresio isolatuak (GOIDI) Valentziako Erkidegoan eragindako eurite handiek sortutako egoera larriari erantzuteko, Gipuzkoako suhiltzaileak eremu kaltetura joan ziren, lurraldearteko laguntza dispositiboaren barruan, eta bilaketa lanetan, ura xukatzen eta garbiketa lanetan lagundu zuten eremu estrategikoetan.

Esku-hartzea lau txandatan egin zen, eta, horri esker, egun kritikoenetan modu jarraitu eta koordinatuan jarduteko aukera izan zuten. Dispositiboa 45 kidek osatu zuten: 5 sarjentuk, 9 kabok eta 31 suhiltzailek. Guztiek ere prestakuntza eta esperientzia zuten egin beharreko lanetan.



Euriteek eta uholdeek eragindako premia ugariei aurre egiteko, taldeak 4 ibilgailu arin eraman zituen, xukatze tresnez, bilaketa eta erreskate materialez, osasun babeserako materialez eta oinarrizko hornigaienez hornituak. Diesel motor bidez funtzionatzen duten 4 sorgailu ere eraman zituzten, argi mozketara jasan zuten eremuetan hornidura elektrikoa mantentzeko, bai eta materialak garraiatzeko ibilgailu astun bat ere.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

4. Prestakuntza

Prestakuntza ikastaroek funtsezko zeregina dute Gipuzkoako PSISZeko profesionalak prestatzen eta gaitzen. Ikastaro horien bidez, aurre egin behar dieten askotariko gertakarietan jarduteko beharrezkoak diren trebetasun, ezagutza eta abileziak eskaintzen zaizkie suhiltzaileei.

2024. urtean zehar, mota askotako ikastaroak egin dira; horietako batzuk langile berriak trebatzeko ikastaroak izan dira eta beste batzuk, aldiz, langileen ezagutzak birziklatzeko ikastaroak.

Honako trebakuntza ikastaro hauek eman dira:

Izena

Suhiltzaileen poltsarako egokitzapena

Suhiltzaileen oinarrizko prestakuntza

Bestalde, honako birziklatze ikastaro hauek eman dira:

Izena	Edizio kopurua	Ikasleak	Orduak
Teknologia berriak garraioan	3	29 (sjt. eta ofi.)	17
JAI	9	270 (suh., kb. eta sjt.)	16
Lehen sorospenak	12	252 (suh. eta kb.)	8
Suhiltzaile etxetik kanpoko praktikak*	-	252 (suh. eta kb.)	7

*Suhiltzaile etxetik kanpoko praktikak desberdinak izan ziren etxe bakoitzean. Bidasoan eta Orian, adibidez, bisitak egin zituzten Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentrora eta IRIZAR eMobilityra, hurrenez hurren.

Azkenik, 2023ko txostenean aurreratu zen bezala, 2024an prestakuntza praktikak antolatzeko formatu berri bat ezarri zen.

5. Prebentzioa

Prebentzioa bi multzotan banatzen da Gipuzkoako PSISZean: barne prebentzioa eta kanpo prebentzioa. Barne prebentzioaren helburua da ziurtatzea instalazioek, ibilgailuek, ekipamenduek eta lan metodoek segurtasun maila egokia berrmatuko dutela bai suhiltzaile etxean bai esku-hartzeetan. Kanpo prebentzioa, aldiz, bi ekintza eremutan banatzen da: lehen mailako prebentzioa eta bigarren mailako prebentzioa.

Honako taula honetan, 2024an lortutako emaitzak laburbiltzen dira:

Jarduera	Taldea	Zk.	2023arekiko aldaketa
Bisita operatiboak*	Bigarren mailakoa	50	+47
Su artifizialei buruzko txostenak	Lehen mailakoa	19	=
Eskola dibulgazioa	Lehen mailakoa	40	+ 13
Simulakroak	Lehen eta bigarren mailakoak	9	+ 1
Fitxa operatiboak	Bigarren mailakoa	30	+17
"Giltzaguneak" eta baserriko armairuak berrikustea	Bigarren mailakoa	1	+0
Don't be dummy	Barnekoa	5	+ 0
Hidranteak berrikustea	Bigarren mailakoa	>200	+200
Prebentzio liburuxken kanpaina*	Lehen eta bigarren mailakoak	1	+1

2024an prebentzio arloetan izan zen hobekuntza 2023aren amaieran egindako plangintzari eta zerbitzuko langileek hura behar bezala gauzatzeari zor zaie.

Azkenik, zerbitzuko profesionalen lan istripuei dagokienez, 23 lesio arin zenbatu ziren 2024an. Horietatik 10 suhiltzaile etxean gertatu ziren, 12 esku-hartzeetan eta bat in itinere. Horietako bakoitza aztertu da, neurri zuzentzaileak ezartzeko helburuarekin.



6. Plangintza

2024an gauzatutako aurrekontuaren banaketa honako hau da:

- Langileen gastuak (% 79,7)
- Inbertsioak (% 6,9)
- Hitzarmenak Donostiako Udalarekin, Hondartza zerbitzuarekin eta Sueskola fundazioarekin (% 5,2)
- Prestakuntza eta prebentzio jardunaldiak, alokairuak, konponketak, askotariko hornidurak eta garbiketa (% 8,2).

Ondorengo taulan inbertsioen banaketa ikus daiteke.

GAIA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	
ERAKINAK / INSTALAZIOAK	Suhiltzaile etxeetako instalazioak hobetzea	49.657	161.767
	Suhiltzaile etxeetarako askotariko altzariak	63.010	
	Instalazio elektrikoak	49.100	
IBILGAILUAK	Kabina bikoitzeko PLA	481.701	867.631
	Autoponpa inude astuna 7.270 l.	385.930	
EKIPAMENDUA ETA SEGURTASUN ELEMENTUAK	400 egiturazko sutarako NBE jantziak	764.720	2.401.552
	Basoko suteetarako modulua	71.632	
	Gas-neurgailuak eta -detektagailuak, dosimetroak...	45.081	
	Bateria bidezko eta presio positiboko 3 haizagailu	24.791	
	Z1/Z2 aginte ibilgailuaren 2 modulu	24.152	
	Mahukak	20.786	
	Gimnasioko ekipamenduko hainbat material	18.135	
	FHL eraberritzea	18.132	
	8 erreskate ohatila	18.068	
	DMR sarea abian jartzea eta ekipoak	17.949	
	6 4K ukipen pantaila interaktibo	17.932	
	2 dibidieta	17.887	
	14 Turbojet ur lantza	17.448	
	4 sartze behartuko T1 tresna	16.456	
	Erreskateko tornua	16.105	
	2 motoponpa	16.386	
	Erreskateko tornua	16.105	
	JAIrako jauzi koltxoia	15.824	
	5 desfibriladore	14.936	
	8 mendiko erreskaterako hustasun koltxoi	14.675	
	4 monitoreko videowalla	14.393	
	8 ATEX terminal eta mikrobozgorailu	13.816	
	50 urruneko mikrobozgorailu	11.979	
	8 suaren aurkako manta, auto elektrikoetarako	10.043	
	6 AEA ainguraketa	8.748	
	7.000 litroko aluminiozko baltsa	6.009	
	BESTEAK (motozerrak, buzoak, bateriak, linternak...)	119.965	
		1.372.154	

GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

Inbertsioetarako dirua % 22 handitu zen aurreko urtearekin alderatuta, batez ere, erorikoen aurkako arnes integratua duten suteen aurkako egiturazko 400 jantzi erosi zirelako.



Janzkera horrek segurtasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen du, eta langileen lan operatiboetan ahalik eta funtzionaltasun eta efizientzia handiena bermatzeko diseinatu da. Ekintza hori urteko inbertsio garrantzitsuenetako bat zen, eta zerbitzuko profesionalen segurtasunarekiko eta ongizatearekiko konpromisoa berresten du.

7. Operazioak

Operazioen arloaren ardura da suteen, erreskateen eta laguntza teknikoaren arloko lan metodoak optimizatzea eta estandarizatzea. Berriki egindako ikerketen emaitzak, materialak eta lan metodoak aztertzen dituzte, Gipuzkoako PSISZaren ezaugarrietara egokitzeko.

Hona hemen 2024ko emaitzak:

- PZ_02 GYMO-A: ANTOLAKETA OPERATIBOAREN ESPARRUA ETA OINARRIZKO JARRAIBIDEAK eguneratzea: Zerbitzu osoaren esku-hartzei erantzuteko sistemaren oinarriak ezartzen ditu, eta suhiltzaile etxeen estaldura eremuak eta larrialdiak sailkatzeko eta erantzun automatikorako irizpideak arautzen ditu. 2024ko apirilaren 25ean argitaratu eta jarri zen indarrean.
- PZ_23 JARRERA AUTOLITIKOEN ONDORIOZKO GERTAKARIAK argitaratzea. Neurriak eta arauak ezartzen ditu bere buruaz beste egin nahi duten pertsonen erantzun eta arreta egokia emateko (JAIren taktika operatiboek sailkatutako istripuak), parte-hartzaileentzako segurtasun berme guztiekin. 2024ko irailaren 10ean argitaratu eta jarri zen indarrean.
- PZ_31 GAS-GERTAERAK argitaratzea: gas isuriekin eta ondoren egin beharreko lanekin eta gainbegiratzearekin lotutako gorabeherei nola erantzun ezartzen du. 2024ko uztailaren 15ean jarri zen indarrean.
- Indarrean dauden prozedurak definitzen eta garatzen dituzten zenbait jarraibide argitaratu eta indarrean jarri ziren: suhiltzaile etxeetan lanak eta funtzioak taldeka banatzeko orriak, sarbidearen kontrola eta arnas ekipoen kontrola, eta hornidura handiak, besteak beste.
- Urtean zehar larrialdi garrantzitsuei buruz (3. maila) egindako informazio bileren ondoriozko txostenak ere argitaratu ziren. Guztira, 5 txosten egin eta 4 argitaratu ziren.
- DMR komunikazio sarea hedatzen eta eguneratzen jarraitu zen. Errepikagailu berriak instalatu ziren Gudamendin, Hondarribian, Azpeitia-Urrestillan eta San Markosen, Donostian, eta azterlan tekniko bat egin zen Hondarribiko Atalerreka HUAan Jaizkibelgo kostaldeari estaldura emango dion errepikagailu berri bat instalatzeko.



GIPUZKOAKO SUHILTZAILEAK

- ALERT-PYR mugaz gaindiko proiektua 2024ko apirilean abiarazi zen, eta 2027ra arte iraungo du. Mugaz gaindiko hainbat lankidetza arlo aztertuko dira. Oraingoan, kartografia komunarekin, koordinazio operatiboarekin eta arrisku teknologikoekin lotutako ekintzak egingo dira. Arriskuak prebenitzeko eta smog toxikoa neurtzeko, monitorizatzeko eta modelatzeko ekipo berritzaileak eta aplikazio informatikoak eskuratu eta erabiliko dira.
- 2024an, hitzarmen bat eta senidetze ekimen bat abian jartzea erabaki zen, Bidasoako eta Hendaiako suhiltzaileen arteko lankidetza sustatzeko, mugaz gaindiko jardueretan ere bai, bi suhiltzaile kidegoen arteko erantzun operatibo bateratua eta koordinatua etorkizun hurbilean errealitate izan dadin.